

3.FUNTSEZKO ELKARTEAK

Hiru pertsona gara proiektu honetan eta gure gaitasunen arabera banatu ditugu zereginak. Ikerrek, sare sozialen kontrola du, jarraitzaileekin komunikazio ona izateko eta informazio guztia partekatzeaz arduratzen da beraz, bezeroarentzako arretaz arduratzen da. Amaiak abeslarien managerrekin harremanetan jartzen da eta haiekin negoziatzen du. Arenek, herrien udalekin hitz egiteaz arduratzen da zerbitzua ahalik eta hobereana izateko eta arazo legalik ez izateko, jaialdia egiteko udalen baimena behar dugulako. Azkenik beste pertsona batzuk azpikontratatu ditugu, janariaz eta ingurumen jasangarria izateaz arduratzen direnak gure kontrolpean hartzen dituzte erabakiak. Produktu guztiak ekologikoak izateaz arduratzen dira. Eta beste aldetik pertsona haiek ere gu proposatutako aktibitateak antolatzen dituzte eta aurrera eramateaz arduratzen dira. Azkenik abogatuena laguntzarekin arazo legal zein ekonomiko ez izateko lan egiten dugu.

